



GARI GARAIALDE

Haurrak festan, atsedenik gabe. Egurdiko 12:00etan haurren danborradari hasiera ofiziala eman ziotenetik, 5.000tik gora ume donostiarrek hartu zuten parte eta ez ziren geldirik izan ezta une batez ere. Dotore-dotore eta danborra astintzeko gogoz agertu ziren denak, San Sebastianen egunean tradizioak agintzen duen legez.

EUSKAL PRESOEN aldeko eta gizartearen beste eskakizun zenbaiten aldeko pankartzek gainezka ageri zen Donostiako Konstituzio plaza herenegun gauerdia baino minutu batzuk lehenago. Plaza bor-bor zegoen ordurako, eta herritarrek festarako gogo handiz, etxean edo lagunartean ederki afaldu ondoren. Konstituzio plazako oholtza nagusian Gaztelubide elkarteak kideak danborrak jo eta jo hasi zirenetik, jendea dantzan eta kantuan aritu zen etengabe. Festaren hasiera ofiziala Donostiako bandera jaso zutenean izan zen, baina ordurako festa giroa zen nagusi Donostiako txoko guztietan.

Bandera jaso ondoren, Gaztelubidekoek Donostiako martxa jo zuten, eta gero Sarriegi musikagilearen beste hainbat lan: *Diana*, *Tatiago*, *Polka*, *Retreta*, *Iriarena*. Azkenik, *Gau Ibilera* jo zuten, eta, oholtzatik jaitsita, festa kaleetara zabaldu zen, goizaldeko ordu txikiak arte.

Egunez, umeak protagonista

Urtero legez, Donostiako haurrek hartu zuten festaren lekukoa eguerdian. 12:00ak baino ordu erdi lehenago, Alderdi Ederreko txokoak betetzen hasi ziren parte hartu zuten 5.000 haurrak. Dotore-dotore guztiak, danborra jo eta jo jardun zuten musikarik gabe, bakoitzak

Danbor eta kolore festa

Herenegun gauerditik gaur goizaldea arte San Sebastianen omenezko jaia egin dute donostiarrek

I. Petxarroman / Donostia

Doinu eta danborren festa izan zen Donostian atzo egun osoan. Herenegun, gauerdiko lehen minututik aurrera Konstituzio plazan Gaztelubide konpainiak Donostiako martxa jo zuenetik, Gipuzko-

ako hiriburuan Sarriegiren musikak ez du etenik izan gaur goizaldea arte. Atzo, egunez, umeen danborrada izan zen protagonista, baina iluntzean, berriz ere, helduek hartu zuten festaren lekukoa, goizaldean amaiera ofiziala izan arte.



PABLO S. QUIZA

Helduak iluntzean. Egunez umeak izan ziren protagonista, baina iluntzean —bai atzo eta bai herenegun— helduek izan zuten toki nagusia. Argazkian ageri den bezala, makina bat jende bildu zen Konstituzio plazara herenegun festari hasiera emateko, danborraren doinuaz.

bere toki bilatzen zuen bitartean. Hedabideetako lankideak txikiei elkarrizketak egiten saiatu ziren hantemenka, baina hitz gutxitarako zeuden atzo haurrak. Bilatuenetako bat Ane Fernandez izan zen, Zurriola ikastolako ikasle eta aurten-go danbor nagusia. Danborrada zuzendu behar zuela eta, «urdu» zegoela adierazi zion EGUNKARIARI. Hala ere, dena ondo aterako zen itxaropena zuen, «asko entseatu» baitu egunotan atzokoari begira.

Eta dena ondo atera zen. Itziar Palacios Easo Ederrak eta Mikel Lesaka danborradako jeneralak festari hasiera eman ondoren, Donostiako martxa jo zuten. Hura gozamen aurpegia Ane Fernandezena! Mundu guztia berari begira zegoela, zuzendariaren makila gora eta behera erabili zuen, estilo handiz.

Pixkanaka Alderdi Eder utzi, eta aurten egokitutako ibilbidea hasi zuten Gipuzkoako hiriburuko kaleetan zehar. Aurten, gainera, ibilbide laburragoa bete behar zuten umeek: Gipuzkoako plazan amaitu zuten, beste urteetan ez bezala.

Iluntzean, berriz ere helduek hartu zuten festaren lekukoa. Festari amaiera ofiziala Konstituzio plazan eman zioten, gauerdian, Union Artesana elkarteak zuzendutako danborradarekin.